



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Eiorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a

Afihatzte eguna : 2023ko apirilaren 28a

12. ERABAKIA: GURE GAIN ELKARTERAKO ORDEZKARIEN IZENDATZEA

(5.3 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari « Gure Gain » elkartearen sortzeko proiektua azaldu dio. Irabazi asmonik gabeko elkartearen xedea da laborantzarekin lotuak diren proiektu kolektiboak abiaraztea, bultzatzea eta laguntzea:

- laborantza ekonomia mantendu eta garatzeko,
 - laborantza eta artzaintza guneen balioan emateko,
 - laborantza eta lurraldeko beste erabiltzaileen arteko elkarbizitza ahalbidezeko,
- Bidarrai, Heleta, Irisarri, Luhuso, Makea, Lekorne, Ortzaize eta Arrosa herriek osatu lurraldean.

Zehaztu du, elkarteko bulegoaren bozkatzeko, Herri Biltzarrak bi ordezkari titular eta bi ordezeko izendatu behar dituela.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

ERABAKI DU, Gure Gain elkartearen herriaren ordezkari izateko honako bi titular eta bi ordezekoak izendatzea:

- Ordezkarititularrak: Jean-Claude IRIART
Jean-François MATEO

- Ordezkoak: Frantxoa IÑARRA
Eiorri AYÇAGUER

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.